

1.- EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA.

Ekainaren 6an Euskal Eskola Publikoaren 19. Jaia egingo da, Araban, AMURRIO n hain zuzen. Dagoeneko ia prest dago behin betiko egitaraua, eta jaiari buruzko informazioa eskuragarri dago webgunean (www.ehige-jaia.org). Iaz bezala, jaiaren egitaraua maiatzaren amaieran ikastetxeetara igorriko dugun BAIKARA aldizkariaren orrialdeen artean txertatuta joango da.

2.- IGEen 2010-2011 IKASTURTERAKO LAGUNTZAK

Oro har, garai honetarako EHAAn argitaratuta egoten da hurrengo ikasturtera begira IGEei banatzeko diru laguntzen deialdia. 2010-2011ko deialdiari buruz galdetu dugu Hezkuntza Sailean, eta jakinarazi digute laguntzen deialdia atzeratu egingo dela, aurten; litekeena da deialdia irailean argitaratzea. Atzerapenaren arrazoa hauxe da: deialdian aldaketa batzuk egiteko aukera aztertzen ari dira; dirudienez, oraindik ezin dute ezer esan aldaketa horiei buruz, behin betiko onespenez jasotzen ez duten bitartean.

Nolanahi ere, deialdian atzerapena gertatuko den arren, IGEek 2009-2010 ikasturtean jasotako diru laguntzaren bidez egindako gastuen justifikazioa aurkeztu beharra daukate, beti bezala, ekainaren 30erako.

Aste honetan federazioak ohar bat igorriko die IGEei, atzerapenaren berri emanez. Era berean, gastuak justifikatzeko bete beharreko eranskina ere jasoko dute.

Gogoan izan jasotako diru laguntzaren kopurua adinakoa edo hortik gorakoa izan behar duela justifikatutako zenbatekoak, eta eranskinarekin batera, **faktura originalak** aurkeztu behar direla.

Aurreko urteetan bezala, dokumentazio guztia BAIKARA bidaltzeko gomendioa egiten diegu IGE guztiei, BAIKARAK aztertu eta Hezkuntza Ordezkaritzan aurkez dezan. Kontuan hartu justifikaziorako epea **2010eko ekainaren 30ean amaitzen** dela.

Bestalde, 2010-2011 ikasturterako diru laguntzen eskariari dagokionez, zer dokumentazio eskatzen duten jakin bezain laster jakinaraziko diegu informazio hori IGE guztiei.

3.- Bizikidetzaren demokratikorako eta indarkeriaren deslegitimaziorako plana.

Duela aste batzuk, Eusko Jaurlaritzak Bizikidetzaren demokratikorako eta indarkeriaren deslegitimaziorako planaren zirriborroa igorri zien Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duten alderdiei, beren ekarpenak egin ditzaten. Aurrerago, Planaren zirriborroa aurkeztu zien gobernuak hezkuntzako eta gizarteko eragileei. Gurasoen federazioei dagokienez, Isabel Celáak bilera baterako deia egin zigun. Bilera hori Bilbon egin zen, PSEren egoitzan, apirilaren 19an. Plangintzaren edukien berri eman zitzaigun, bereziki, hezkuntza arloko aplikazioaren berri, eta sailburuordeak gure iritzia emateko eskatu zigun. EHIGEk aditzera eman zion dokumentu hori eztabaidatu gabe zeukatela federazioek, egun gutxi baitziren eskuratu genuela. Baina ohar hauek egin genizkion:

- Ez zaigu egokia iruditzen era horretako plan bat ikastetxeetara igortzea, aldeztu aurretik planaren edukiei buruzko akordio politiko zabalik lortu gabe.
- Aurreko Eusko Jaurlaritzak Bakearen eta Giza Eskubideen Aldeko Hezkuntzako Euskal Plana onartu zuen, eta 2008-2011 bitartean aplikatu behar zela jakinik, ez dugu ulertzen zergatik planteatzen den haren birformulazio bat, aldeztu aurretik gutxienez hiru ikastetxetako aplikazio esperimentalaren balioespina egin gabe.
- Ikastetxeek plana aplikatzeko eta haren nahitaezko izaerarekiko autonomiarekiko errespetua eskatzen dugu.

Azkenik, Euskadiko Eskola Kontseiluak planari buruzko irizpena eman behar duela kontuan hartuta, gure iritzia Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren bileran adieraztea erabaki genuen.

Bilera hori maiatzaren 3an egin zen, eta sei orduko eztabaidaren ondoren, aho batez onartutako testu bateratu bat onartu zen.

Testu horretan, Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek honako ekarpen hauek planteatu zizkion Eusko Jaurlaritzari, laburbilduta:

- **Iritzi orokorra:**

- Kontseiluak, plana oro har izaera politikokoa izanik, eta herrialde honetarako eta bere hezkuntza-komunitatearentzat garrantzitsua denez, beharrezkotzat jotzen du plana hezkuntza mundura eramaterakoan politikarien arteko adostasun maila handia izatea, horrek finkatutako helburuak betetzea erraztuko bailuke.
- Kontseiluak orain arteko parte-hartzea eta atxikimendu maila ez direla nahikoak uste du, eta dei egiten du parte-hartzea bilatzen jarraitzeko, bereziki planaren neurriak zehazteko, horrek zalantzarik gabe helburuak betetzea erraztuko baitu.
- Horrenbestez, Kontseiluak, birformulazioaren norainokoa sakonkiago aztertu ahal izateko, beharrezkotzat jotzen du plan berriaren bertsio osoa eskuratzea.
- Bestalde, sarrerak eta arrazoen azalpenak eduki politiko nabaria dute, eta Kontseilua ez da sartuko alderdi horien analisisan. Hala ere, beharrezkotzat jotzen du alderdi politikoek eta Gobernuak izaera integratzaile handiagoko testu baten inguruko adostasuna lortzearen alde lan egitea.

- **Biktimei lehentasunezko tratamendua ematea:**

- Kontseiluaren iritziz, biktimen lekukotza balio handiko baliabide pedagogikoa da eta bizikidetzarako hezkuntzaren prozesuan laguntzen du, baldin eta bere egokitasuna irizpide pedagogikoen eta aniztasunezkoen arabera erabakitzen bada. Jarduera, metodologia, denbora eta baliabide egokienak ikastetxeek zehaztu behar dituzte, beren autonomiari jarraituz.
- Ikastetxeek biktimaren kontzeptuari dagokionez bete beharreko araubidea eta eman beharreko tratamendu pedagogikoa

- **Ikastetxeek egindako lana:**

Kontseiluak beharrezkotzat jotzen du proposatutako neurriak sartzean ikastetxeen esperientzia hori kontuan izatea

- **Bestelako gizarte eragileen parte-hartzea:**

Euskadiko Eskola Kontseiluak azpimarratu nahi du gizarte eragileen eta erakundeen parte-hartzea garrantzi handikoa dela, zuzentasuna, elkartasuna, enpatia, gupida eta antzeko balio positiboak sustatzeko, herritarrek balio horiek beregana ditzaten.

Hezkuntza Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluaren ekarpenen txostena jaso ondoren, Isabel Celáa sailburuordeak prentsaren aurrean adierazi zuen ekarpenak oso interesgarriak zirela eta haien azterketa xehea egingo zutela. Ondoren, oposizioko alderdi nagusi PNV-EAJK gobernuarekin negoziatzen hasteko prestutasuna adierazi zuen, Planari buruzko akordioa hitzartzeari begira, baina negoziatzearako baldintza ezarri zuen Eusko Jaurlaritzak testu osoaren kopia bat ematea, jakiteko aurreko planetik zer atal gelditzen diren berdin-berdin eta zer atal aldatuko diren eta nola.

Gure azken informazioaren arabera, Eusko Jaurlaritzak Bakerako Planaren testu bateratua igorriko dio EAJri, eta, urrats horren ondoren, bi alderdien arteko negoziatzea hasiko dela pentsatzen dugu.

4. Oinarrizko hezkuntzako curriculum berriaren argitalpena.

Eusko Jaurlaritzak curriculum ofiziala aldatzeko asmoa zuen hasieran, eta Eskola Kontseiluan eta beste organo ofizialetan egin beharreko eztabaidak eginda, EHAAan apirilaren 20an eman dute argitara Derrigorrezko Irakaskuntzako curriculum ofizialaren aldaketarako dekretua. Batxilergoko eta Haur Hezkuntzako dekretuak maiatzaren 7an argitaratu ziren.

Eztabaida gehien sortu duten alderdiei dagokienez, honako puntu aipagarri hauek biltzen ditu dekretuak:

- Dekretuak dio Euskal Herria izan zela eta gaur egun ere badela, kontzeptu linguistiko eta kultural gisa, XVI. mendeaz geroztiko euskal literaturaren historiako testu batzuetan aipatua denez eta horietatik gizarte erabilerara hedatu denez, baina ez lurralde izate edo izate politiko-administratibo gisa. Xedapenetan, dekretu berriak zortzi aldiz aipatzen du kontzeptu hori, betiere Euskal Herriaren elebitasunari, ohiturei, tradizioei eta iraganeko nahiz gaur egungo adierazpen kulturei, arteari, Historiaurreko kulturei, erlijioari edo kultura materialeko soluzio teknologikoei loturik.

- Euskararen tratamenduari dagokionez, dekretuak lehentasunezko arretako hizkuntza gisa aipatzen du euskara, nahiz eta beti hartzen duen kontuan bi hizkuntza ofizialkide daudela. Alde batera utzi da euskara hizkuntza nagusi gisa tratatzea, nahiz eta aitortzen den euskararen defizita eta hura sustatzeko premia.

Hala, datorren ikasturtean hezkuntza komunitatea curriculum berrituekin hasiko da lanean. Aldaketa horien berri emateko, Hezkuntza Sailak arauaren zabalkunderako argitalpen bat egingo du, ikasturte honen amaieran edo hurrengoaren hasieran iritsiko dena ikastetxeetara.

5.- Intereseko beste gai batzuk

5.1 Testu liburuen mailegurako programa.

Aurreko apirilaren 19an bilera bat egin zen Lakuan, testuliburuen mailegurako programari buruz. Datorren ikasturteari begira, Hezkuntza Sailak ez du inolako aldaketarik aurreikusi Lehen Hezkuntzan programa hori aplikatzeari dagokionez. Berrikuntza bakarra da programa DBHn ere ezartzen hasiko dela, datorren ikasturtean, lehen mailatik hasita. Hala, 2010-2011 ikasturtean, testuliburuen mailegurako programa Lehen Hezkuntza osoan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen mailan ezarriko da. DBHn programa ezartzeko Lehen Hezkuntzan bere garaian egindako urrats berberak egingo dira; hau da, familiek kuota bat ordainduko dute liburuak erabiltzearen truke, eta liburuak lau urterako erabilgarritasuna izango dute.

Aste honetan ari da Hezkuntza Saila funtzionamendurako jarraibideak bidaltzen ikastetxeetara. Honako kopuru hauek aipatzen dira:

Ikasle bakoitzeko kostua:

Lehen Hezkuntzako 1. zikloko ikasle bakoitzeko 115 euro.

Lehen Hezkuntzako 2. zikloko ikasle bakoitzeko 130 euro.

Lehen Hezkuntzako 3. zikloko ikasle bakoitzeko 134 euro.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailako ikasle bakoitzeko 200 euro.

Sailaren ekarpena:

89 €, Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasle bakoitzeko.

12 €, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasle bakoitzeko. (Lan koadernoak berritzeko).

12 €, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasle bakoitzeko.

165 €, Bigarren Hezkuntzako 1. mailako ikasle bakoitzeko.

Ikasle bakoitzaren ekarpena:

26 €, Lehen Hezkuntzako 1. zikloan matrikulatutako ikasle bakoitzak.

29 €, LHko 2. zikloan matrikulatutako ikasle bakoitzak.

30 €, LHko 3. zikloan matrikulatutako ikasle bakoitzak.

35 €, DBHko 1. mailan matrikulatutako ikasle bakoitzak.

Aipatutako erosketen zenbateko osoa ziklo bakoitzean estimatutako gastuen zenbatekoa baino handiagoa balitz, zentroak duen soberakinarekin osatuko da, eta ez ikaslearen ekarpena igoz. Ostera, ikastetxean saldirik geratzen bada, soberako dirua erabiliko da programako ikasmaterialak erosteko.

5.2 Jangeletako greba.

Martxoko greben eta patronalak eta sindikatuak egindako bileren ondoren, hitzarmen kolektibo berrirako aurre akordio bat bazela zirudien. Aurre akordio hori, ordea, ez dute berdin hartu sindikatu guztiek. LAB eta UGT sindikatuak begi onez hartu zuten proposamena, eta prest zeuden patronalarekin hizketan jarraitzeko, mobilizazio gehiago antolatu gabe. Aldiz, CCOO eta ELA sindikatuak ez dute onartu aurre akordio hori. Oraingoz, sindikatuen arteko banaketaren eraginez, negoziazioak ez aurrera ez atzera daude, sindikatuak zer esango. Sindikatuen desadostasunen ondorioz auzia ez atzera ez aurrera geldituko zela ematen zuen, baina azken egunetako hainbat gertaerak okertu egin dute egoera. Enpresek sindikatuei jakinarazi diete negoziazioak bertan behera utzi dituztela, argudiatuz enpresa batzuek beren bulego nagusietan mehatxuak eta jazarpena jasan dituztela.

Beraz, egoera hori ikusita, ez da baztertu behar sindikatuak berriro mobilizazioei ekitea. Berriro grebarik antolatuz gero, Hezkuntza Sailak martxoko grebetarako onartutako gutxieneko zerbitzuak ezarriko ditu. Honako hauek, hain zuzen:

- %10, sukaldeko langileentzat (menu errazak prestatzea)
- %10, officeko langileentzat (botatzeko materiala)
- %80, 2 eta 3 urteko jankideentzat
- Ikastetxeko langile guztien %10, lehentasunez arreta emateko 4 eta 5 urteko jankideentzat eta garraioa erabiltzen duten jankideentzat.
- Era berean, hizkuntza premia bereziak dituzten ikasleei arreta emateko behar beste langile.
- Eskola jantokiek zabalik egon beharko dute. Horretarako, eragindako zerbitzua egokitu beharko da gutxieneko zerbitzuko langileekin, baita lanerako eskubidea bete nahi duten guztiekin ere.

5.3 Irakasleen greba.

STEE-EILAS, ELA eta LAB sindikatuak mobilizazioak antolatu dituzte hezkuntza publikoan, maiatzaren 25erako; irakasle greba, besteak beste. Gatazkaren jatorria 2012rako irakaskuntza akordioaren negoziatioa dago. Sindikatuen eta Hezkuntza Sailaren arteko negoziatioetan, bistan gelditu da, beste behin ere, sindikatuen arteko zatiketa. Izan ere, azkenean, CCOO eta UGT sindikatuak aurre akordio bat sinatu zuten maiatzaren 12an, irakaskuntza publikoko irakasleen lan baldintzei buruzkoa. Beste hiru sindikatuak, ordea, arbuiatu egin zituzten haiek hitzartutako neurriak, lan baldintzetan murrizketa nabarmenak ekarriko dituztela argudiatuta. Hori dela-eta, eutsi egingo diote maiatzaren 25erako greba deialdiari, presioaren bidez akordio hori aldatzeko eta hobetzeko xedez.

Greba deialdi hori dela-eta, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak maiatzaren 22an Hezkuntzarako onartutako gutxieneko zerbitzuak honako hauek dira:

Ikastetxe publikoetan, unibertsitate-zentroetan eta haurreskoletan, ondoren adieraziko diren zerbitzuak mantenduko dira honako langile hauekin:

1) Zentroetarako sarrera-kontrola bermatzeko, zentro publiko bakoitzeko: zuzeneko ekipoko pertsona bat eta urgazleen plantillako pertsona bat goizeko txandarako eta beste bat arratsalderako.

2) Eskola-egutegian planifikatutako azterketak egiteko: azterketa egiteaz arduratutako irakasle bat.

b) Haurreskolak Partzuergoa: zentroetarako sarrera-kontrola bermatzeko, zentro bakoitzeko koordinatzaile bat, edo ordezkaturako duen pertsona bat.

5.4 Erljioko eskolei buruzko kanpaina.

Eskola publiko laiko baten aldarrikapena eskola publikoko gurasoen mugimenduaren aldarrikapen historikoa da. Gai horri buruzko eztabaida egin izan dugun guztietan (curriculum lantzekoan, matrikulazio kanpainetan,...) beti egin izan dugu Erljioa irakasgaia eskola ordutegitik ateratzearen alde. Aldarrikapen hori gorabehera, ordea, hezkuntza legeek irakasgai horren irakaskuntzari ematen dioten tratamendua Espainiako estatuak Vatikanorekin 1979ko urtarrilean sinatutako akordioetan oinarritua da, Konkordatua deritzenenetan oinarritua. Akordio horren arabera, irakaskuntza publikoaren derrigorrezko etapetan "*erlijio katolikoa irakatsiko da ikastetxe guztietan, gainerako oinarrizko diziplinen pareko baldintzetan.*" Derrigortasun hori hezkuntza lege guztietan mantendu da, baita LOEn eta Eusko Jaurlaritzak berriki onartutako oinarrizko curriculumetan ere.

Lege esparru hori gorabehera, eskola publikoko ikasleen guraso federazioen iritziz, irakaskuntza publikoaren laikotasuna aldarrikatzen jarraitu behar dugu, are gehiago kontuan izanik Euskadin familien gutxiengoak egiten duela Erljioa irakasgaiaren aldeko hautua. Horren erakusgarri dira irakaskuntza publikoko azken ikasturteko datuak: Lehen Hezkuntzan, ikasleen %33,2k hautatzen du Erljioa; DBHn, ikasleen %21,2k, eta Batxilergoan, 379 ikaslek.

Eskola Erljioa irakasteko toki egokia ez dela irizteaz gainera, ikasleen gehiengoak ez dute aukera horren aldeko hautua egiten eta ez dute inolako biderik ere irakasgai horren ordeztu curriculumeko beste gairik lantzeko; alegia, behartuta daude beste era bateko jarduerak egitera Erljioa ikasi nahi ez izanez gero. Erljioko eskolek astean 1,5 ordu hartu behar dituzte, gutxienez.

Hori dela-eta, EHIGE Konfederazioak kanpaina bat jarriko du abian, Erljioa irakaskuntza eskaintzatik kendu ezin badaiteke ere, bederen ikasleek curriculumeko derrigorrezko edukietarako erabil ditzaten eskola ordu guztiak, eta Erljioko eskolak gutxienezko eskola orduetatik kanpo irakats daitezzen.

6. IGEei laguntzeko liburuxka.

Federazioak 2009-2010 ikasturterako aurreikusitako Jardueren Plangintzan IGEei kudeaketan laguntzeko liburuxka bat argitaratuko zela aipatu zen. Liburuxka edo gida horrek bildu beharko lukeen informazioari buruz luze eta zabal jardun ondoren, azkenik idatzi da testua, honako informazio honek osatua:

- Sarrera.
- Zer dira IGEak?
- IGEen betebeharrak.
- IGEen kudeaketa eta administrazio organoak.
- IGEen kudeaketari loturiko beste alderdi batzuk.
- BAIKARA FEDERAZIOAREN informazioa.

Testu horren zirriborroa Guraso Elkartei banatu zaie, azter dezaten eta, egoki iritziz gero, aldaketarako proposamenak egin ditzaten.

Behin betiko testua aztertu eta landutakoan, inprimategira bidaliko da, argitara dezaten eta, irailaren hasieran IGEei behin betiko argitalpena bidaltzen zaienean, aurkezpena eta balioespena egingo dira, iraileko eskualde bileretan.

Era berean, federazioaren webgunean egongo da gida eskuragarri, PDF formatuan.

7. GALDE-ESKEAK

2010-011 ikasturterako zonaldeko bileraren data berriak

Datorren ikasturtean bi eskualde bilera egin ordez, hiru eskualde bilera egiteko asmoa dago. Horrela, ikasturteko hiruhileko bakoitzeko bilera bat egingo litzateke, honako data hauetan, gutxi gorabehera: irailaren amaieran, urtarrileko bigarren hamabostaldian, eta maiatzeko bigarren hamabostaldian. Batzar Orokorra azaroko lehenengo larunbatean izango da, ohi bezala.